



## **12/2020 TXOSTENA, AZAROAREN 13KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA**

### **XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZAKO EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DITUENA**

#### **I.- AURREKARIAK.**

18/2020 Dekretuak, irailaren 6koak, lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, honako hau ezartzen du 3. artikuluan:

«3. artikulua.- Lehendakaritza.

1.- Autonomia Estatutuak, Jaurlaritzaren Legeak eta beste lege-xedapen batzuek lehendakariari ematen dizkioten egitekoak bete ahal izateko, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako organoen laguntza izango du lehendakariak. Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura eta egitekoak dekretu bidez zehazten dira.

[...]

3.- Jaurlaritzaren Lehendakaritza sailtzat joko da aurrekontuetarako eta kontrataziorako.»

Hortaz, dagokion dekretu-proiektua egitea sustatu da, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 3. artikulua horretan esleitutako arloei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2020ko urriaren 30ean, Jaurlaritzaren Lehendakaritzak eskaera egin zuen Aholku Batzorde honek txostena egin zezan Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen dekretu-proiektuari buruz.



Espediente hori Tramitaguneren —prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren— bidez izapidetu zen, DNCG\_DEC\_107167/20\_01 erreferentziarekin, eta honako agiri hauek jasotzen ditu:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Dekretu-proiektuari buruzko justifikazio-memoria, Lehendakartzako idazkari nagusiak sinatua.
- Memoria ekonomikoa, Zerbitzu zuzendariak sinatua.
- Lehendakartzako Aholkularitza Juridikoaren txostena.

## **II.- ESKUMENA.**

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 2. apartatuan ezarritakoari jarraikiz, dekretu-proiektuak kontratazioaren eremuari eragiten baitio, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren arabera, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Aholku Batzordeari dagokion aholkularitza-eginkizuna Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik.

## **III.- KONTRATAZIOAREN ARLOAREKIN LOTUTAKO ESPARRUAK:**

Ondoren, proiektuan jasotako esparru guztiak transkribatuko dira:

«5. artikulua.- Idazkaritza Nagusiak:



1.- Lehendakaritzaren egitura osatzen duten Idazkaritza Nagusietako bakoitzari kontratazio-arloko honako eginkizun orokor hauek betetzea dagokio —hargatik eragotzi gabe dekretu honetan zehaztutako arlo espezifikoak—:

a) Kontratazio-organo gisa jardutea esleituta dituzten jardun-arloei dagozkien gaietan, betiere indarreko legeriaren arabera kontratu txikiak ez direnean. Hala ere, kontratazio-organo gisa jardungo dute, baita ere, zuzenean haien mende dauden zuzendaritzen jardun-eremua gainditzen duten kontratu txikiekin, baldin eta haien jardun-eremuei dagozkien gaietara buruzkoak badira.

b) Beharrezkoak diren gastu-baimenak ematea beren jardun-arloen berezko gaietara buruzko espedienteak izapidetzeko, 9.2.d) artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

c) Beren jardun-arloen berezko gaien eremuan, baliabide propio pertsonifikatuei egindako enkarguak sinatzea, kontratazio publikoari buruzko indarreko legerian kontratu txikientzat ezarrita dagoena baino zenbateko handiagoa dutenean.

[...]»

«6. artikulua.- Zuzendaritzak.

Lehendakaritzaren egitura osatzen duten zuzendaritzetako bakoitzari dagokio, dekretu honen hurrengo kapituluetan zehazten diren arlo espezifikoetara kalterik egin gabe, honako eginkizun orokor hauek betetzea:

a) Kontratazio-organo gisa jardutea, esleituta dituzten jardun-arloei dagozkien gaietan, baldin eta indarreko legeriaren arabera kontratu txikiak badira.

b) Gastu-baimenak ematea indarreko legerian kontratu txiki gisa tipifikatutako eta bere jardun-arloei dagozkien espedienteetako kontratuetan.

c) Beren jardun-arloen berezko gaien esparruan, baliabide propio pertsonifikatuei egindako enkarguak sinatzea, kontratazio publikoari buruzko indarreko legerian kontratu txikientzat ezarrita dagoena baino zenbateko txikiagoa dutenean.



[...]»

#### «LEHENDAKARITZAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

##### 8. Artikulua.- Eginkizunak

[...]

2.- Lehendakaritzari dagozkion eskumenen eremuan, hauek dira Lehendakaritzaren idazkari nagusiak bere gain hartu beharreko eginkizunak:

[...]

d) Kontratazio-organoaren eginkizunak betetzea Idazkaritza Nagusiren baten berezko eremuaz haraindiko gaietan eta indarreko legeriaren arabera kontratu txikitzat hartzen ez diren gaietan, bai eta, oro har, sailtako titularrei esleitzen zaizkien ahalmenak izatea ere, aurrekontuen eta kontratazioen araubideei dagokienez.

e) Era berean, Idazkaritza Nagusiren baten berezko eremuaz haraindiko gaietan, baliabide propio pertsonifikatuei egindako enkarguak sinatzeko eskuduna izango da, kontratazio publikoari buruzko indarreko legerian kontratu txikientzat ezarrita dagoena baino zenbateko handiagoa dutenean.

f) Lehendakaritzaren eskumeneko espedienteak izapidetzeko behar diren gastu-baimenak ematea, baldin eta Dekretu honetan beste organo batzuei esleitu ez bazaie, eta ezertan eragotzi gabe zenbatekoaren arabera Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluari dagozkion gastu-baimenak.»

##### «10. artikulua.- Araubide Juridikoaren Zuzendaritza.

Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio:

[...]

d) Saileko organoei aholkularitza ematea honako hauei buruz: sektore publikoaren kontratuei buruzko legeria; legeria horretan araututako prozeduretan legeria hori egoki aplikatzea; eta kontratuak gauzatzea; ez dira hargatik eragotziko beste organo batzuei esleitutako eskumenak. Era berean, aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna kontratazio-mahaiak bete beharko du.



[...]»

«12. artikulua.- Zerbitzu Zuzendaritza.

[...]

3.- Kontratazioaren arloan, Zerbitzu Zuzendaritzari egiteko hauek dagozkie:

a) Sektore publikoaren kontratuei buruzko legeriari lotutako prozedurak izapidetzea, ezertan eragotzi gabe Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumenei eta Lehendakaritzako beste organo batzuei (Euskadiren atzerriko ordezkari) arauz esleitutako eskumenak.

b) Idazkaritza Nagusiren baten berezko eremuaz haraindiko gaitan, kontratazio-organo gisa jardutea, baldin eta indarreko legeriaren arabera kontratu txikiak badira.

c) Idazkaritza Nagusiren baten berezko eremuaz haraindiko gaitan, baliabide propio pertsonifikatuei egindako enkarguak sinatzea, kontratazio publikoari buruzko indarreko legerian kontratu txikiak ezarrita dagoena baino zenbateko txikiagoa dutenean.

d) Lehendakaritzaren gastu-baimenak ematea, baldin eta Dekretu honetan gastu-baimen horiek beste organo batzuei esleitu ez bazaizkie, eta ezertan eragotzi gabe zenbatekoaren arabera Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluari dagozkionak.

«18. artikulua.- Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza.

[...]

2.- Euskadiren Europar Batasuneko ordezkariak kontratazio-organo gisa jardungo du bere lurralde-eremuan egiten diren kontratuetan, baldin eta sektore publikoko kontratuei buruzko legerian araututako kontratu txikiak badira, eta higiezinak errentatzeko kontratuak badira, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 41. artikuluko 2. apartatuko a) eta b) letretan ezarritako eran. Gainera, kontratazio horiek eragindako gastua baimendu beharko du.»



«19. artikulua.- Euskadiren kanpoko beste ordezkari batzuk.

[...]

3.- Jaurlaritzaren Lehendakari eta Ogasun eta Finantza Sailari dagozkien organoen menpe, Euskadiren Kanpoko Ordezkaritza bakoitzeko titularrak, bere esparruan, ondoko eginkizunak beteko ditu:

[...]

b) Kontratazio-organo gisa jardutea bere lurralde-eremuan egiten diren kontratuetan, baldin eta sektore publikoko kontratuei buruzko legerian araututako kontratu txikiak badira, eta higiezinak errentatzeko kontratuak badira, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 41. artikuluko 2. apartatuko a) eta b) letretan ezarritako eran. Gainera, kontratazio horiek eragindako gastua baimendu beharko du.

[...]»

Lehenik eta behin, transkribatutako apartatuetako zenbait akats edo hutsune aipatu behar dira, hala nola:

- 5. artikuluan, 9.2.d) artikuluari buruzko aipamena ez da zuzena, ez baitago letra edo apartatu hori. Agian 8.2.d) letra aipatu nahi izan da. Nolanahi ere, 5. artikuluko horretako a) letran zein b) letran ere, egokiagoa litzateke dekretuan bertan ezartzen diren salbuespenei buruzko aipamen orokor bat egitea.
- 8. artikuluan 2. apartatuaren d) letrak honako hau aipatzen du: « Aurrekontu-araubidearen eta kontratazioaren arloan sailtako titularrei esleitzen zaizkien ahalmenak baliatzea ». Aipamen horrek ere ez dirudi egokia denik, ahalmen horiek ez baitira berdinak sail guztietan (adibidez, sailtako titular batzuk kontratazio-organoak dira, eta beste batzuk ez, eta dirudienez, argi dago lehendakariari ez zaiola eman nahi kontratazio-organoa izateko ahalmena).
- Baliabide propioei egindako enkarguei buruzko aipamenek kontratu txikiaren zenbatekoak gainditzen dituzten ala ez bereizten dute, baina aipamen horiek



ez dira zuzenak. Izan ere, enkarguak ez dira kontratuak, eta ez dira kontratazio-araudiaren arabera arautzen, ez zenbatekoak zehazteari dagokionez, ez eta beste alderdi batzuei dagokienez ere, salbu eta baliabide propio pertsonifikatuaren izaera eta enkarguen araubide orokorra ematen direnean.

- Kontratazio-mahaiari egindako aipamenak ere ez datoz bat. Izan ere, aipamen horiek mahai bakoitzaren osaera ezartzen duen Aginduan sartu behar dira, eta agindu hori Ekonomia eta Ogasun Saileko titularrak ematen du, nahiz eta, Lehendakartzaren kasuan, Jaurlaritzako idazkari nagusiak proposatuta egiten duen.
- 12. artikuluko 3. apartatuan gastua baimentzeari buruz egiten den aipamena ez dator bat 8. artikuluko 2. apartatuko f) letran egiten den aipamenarekin. Bi organo desberdinen esku geratzen da gastua baimentzeko hondar-eskumena.

Hala eta guztiz ere, transkribatutako artikuluen konplexutasunari buruzko gogoeta egitea komeni da. Izan ere, kontratazio-organu ugari daude, eta horien barruan, kontratu txikien eta nagusien artean bereizten da, eta horrek zaildu egin dezake kontratazioaren plangintza globala egitea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean SPKL) behartzen duenari jarraikiz (azaroaren 8ko 9/2017 Lege horren bidez, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko otsailaren 26an emandako 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora). Lege horren 28. artikuluen 4. apartatuan xedatzen denaren arabera, sektore publikoko erakunde guztiek kontratazio publikoko jardueraren programazioa egin behar dute aurrekontu-ekitaldi bakoitzean edo urte anitzeko aldietan, bai eta kontratazio-planaren berri eman ere, aurretiazko informazioaren iragarki baten bidez; iragarki horren araubidea, era berean, 134. artikuluan ezartzen da.

Autoantolaketarako ahala errespetatu behar bada ere, nabarmendu behar da kontratazio-organuak oso sakabanatuta daudela, eta horren ondorioz, eta nahi gabe, kontratu bakarra izan beharko luketenak hainbat kontratutan zatitzen direla, beste kontratazio-organu batzuk izapidetzen dituztenak ezagutzen ez direlako.



Ondorio horietarako, gainera, Batzorde honek martxoaren 5ean emandako 1/2020 Gomendioa gogoratu behar da. Izan ere, Gomendio horren arabera, eta Legeak ezartzen duenari jarraikiz, kontratu txikiak salbuespena dira publizitatearen eta lehia askearen araubide orokorrean, eta, beraz, horien erabilera mugatu egin behar da, eta prozedura irekiaren bidez —prozedura sinplifikatua barne— izapidetutako kontratu handien eta esparru-akordioen alde egin.

Azkenik, hainbat kontratazio-organo izateko arrazoia ere izan daiteke kontratukopuru handiak eta oso konplexuak izapidetu behar izana. Hala ere, Lehendakariak azken hiru urteetan egindako kontratuen gaineko azterketa batek iradokitzen duenez, sistema hori sinplifikatzeko aukeraz hausnartu daiteke; izan ere, azterketa horren arabera, hogeit bat kontratu baino ez daude, erregulazio harmonizatukoa bateren bat baino ez da, eta kontratu txikiak berrehun inguru dira, urtero.

Era berean, kontratazio-organoak izango luke bere kontratazio guztietarako gastuaren baimena emateko eskumena, eta horrela, zalantzak edo kontraesanak saihestuko lirateke.

Kontuan hartuta esandakoa, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta aholkuen arabera egokitzen bada.